

Mariasun Landa,

IDAZLE

Anjel Lertxundi

1995.eko maiatzak 16an Donostiako Udal Liburutegian Anjel Lertxundik Asun Landa idazle errederiarren hitzaldiari egin zion sarrera.

Salamankan ezagutu nuen. Biok gure ikasketen konbalidapenen bat genuen bertako unibertsitatean eta, han pasatu genituen egunetan. Mariasun Landaren bi ezaugarriek harritu ninduten: sentiberatasunak eta kemenak. Mariasunek dohain berezia du pertsonak juzkatzeko, paisaiak ikusteko, giza-egoerak neurtzeko orduan. Irribarrezka disimulatzen duen kemena erantsi behar zaio sentiberatasun horri: bere iritziei, bere jarreiei, beste usteei eusteko modu irmoa.

Sentiberatasuna gehi kemena. Bi ezaugarriok ez dira hain arrotzak izango, baina nik ez dut ezagutzen biak batera eta modu nabarmenean eta modu orekatuan biltzen dituen pertsona asko. Mariasun Landak, ordea, ederki biltzen ditu, eta, horri esker, ahuleziarekin nahasi ezin den tolerantziaren jabe da: tolerantzia da besteen ideiekiko, bai artearen mailan, baita beste giza-mailetan ere; baina, era berean, ez zaio bere iritzia defendatzeko kemenik falta.

Ez zitzaion nik ezagutu nuen garai hartan euskara ia hutsetik bereganatu eta irakaskuntzako eremuetan lehenbizi, euskal literaturarenetan gero, ausartzeko kemenik falta izan. Bi langintzetan ezagutzeko aukera –eta zorrea– izan dut, Zarauzko ikastolan hasieran eta literaturaren abenturan gero, eta bietan ikasi dut Mariasunengatik, zaila baita Mariasunekin harremanak izan eta ezer ikasi gabe gelditzea.

Baina Mariasun Landa idazle gisa dago gaur hemen. Inork ez dizkio ukatuko haur literaturan dituen tokia eta itzala, baina berriro diot: Mariasun Landa idazle gisa dago hemen, haur literaturaren etiketa gainditu eta literaturaren sustantiboa bere egin duen idazle gisa. Adjetiborik gabe. Baieztapen honen zergatia agertzen saiatuko naiz ondoren.

Haur literaturak, euskaldunak nahiz beste edozein hizkuntzetakoak, oreka zail bat gorde behar du: nori eskaintzen zaion begiraturik (haurrari, alegia), pedagogia dauka mutur batean; literaturarekiko esijentziei zehatz erantzunez gero, bere publiko naturala galdu eta helduago baten gustuak eta apetak ez asetzeko arriskua dauka beste muturrean. Bi puntu horien artean zaburka ibili beste erremediorik ez omen du haur literaturak.

Jokabide pendular horretan, arrazoi komertzial eta didaktikoek hala eskaturik, haur literaturak eskolaren morrontza gehiegia du etsai.



Mariasun Landak ezagutzen du apuntatu dudan egoera hori, baina ez da tentaldi horien kantura makurtu den idazlea: idazle errederiarrak aukeran nahiago du testuaren barne-koherentziari erantzun, Mariasunen testuak literarioak baitira, fikzioaren eremuetan mundu koherente bat eraikitzen dutenak.

Mundu koherente horren ardatzean ia pertsonaia bakar bat –eta bakarrik– dago sarri Mariasunen testuetan. Iholdi, Irma, Alex, bere azken narrazioko Xabi... Pertsonaia nobeletan bezala, Mariasunen narrazioetan ere izen propio bat agertzen da sarri titulutzat.

Pertsonaia horrek gatazka bat bizi du: ez dago bere buruarekin kontent, ez baitago bere inguruarekin ados. Ezinegonaren arrazoiak gure gizartekoak dira: dibortzioa, amaren lige berria eraman ezina, familiaren itzal gehiegia...

Pertsonaiaren ezinegon hori da Mariasunen literaturaren motore. Mariasunen narrazioak ez baitira amableak, edulkortuak, dultzeak, goxoak... Mariasunen testuak gatazkatsuak dira, zirikatzaileak, bizitza eta mundua erronka moduan aurkezten dituztenak.

Bizitza gatazka moduan; baina bizitzaren saria ez da gatazkaren konponketa, gatazka giza kondizioaren ezaugarritzat hartzea baino. Eta literaturak ez du gatazka nola konpordu irakasten, gatazkari aurrez aurre begiratzen baino.

Mariasunen hizkera literarioaz ere hitz bi: zapatak oinaren neurriko behar izaten omen du, eta halakoxea da Mariasunen hizkera literarioa: testuaren neurrikoa, testuaren enbarazo egingo ez diona. Mariasunen bidea ez da gure haur literaturan hain ibiliak eta eginak diren dibertimendu soilaren eta lirikotasunaren bideak. Horregatik irakurleak ez du hitz joku eta dibertimendu linguistikoki askorik aurkitu Mariasunen testuetan. Halaber, ez du aurkituko efusio lirikorik ere, Mariasunek, oinari zapata egokitu behar horretan, bai baitaki gatazkaren garapenak beharrezkoa duela hizkeraren funtzionaltasuna.

la konturatu gabe, literatura modernoaren ezaugarri nagusienez mintzatu naiz. Mariasun Landaren literaturak modernitatea baitu ardatz: gizakia ardatz harturik, bidea egin behar diren erronka ardatz duen modernitatea.